Larramendi Kalea 11- 20120 Hernani / Telefonoa: 943 330899 / Faxa: 943 336306 / E-maila: kronika@kronika.net

Hernaniko kronika.net TOKIKOM

Osteguna, 2010/04/15



AURREKO EDIZIOAK
Aukeratu nahi duzun data
2010
apirila
14
BILATU

Kronika Zaharrak

ARGITARATZAILEA
LAGUNTZAILEAK

KRONIKA.NET



# Adurizek ireki zuen txotx denboraldia Astigarragan

2008/01/17 - Osteguna

andoni luis aduriz sukaldariak ireki zuen atzo txotx denboraldia astigarragan, petritegi sagardotegian. urteroko moduan, ikusmin haundia sortu du astigarragako txotx irekierak eta sagardo munduko jende ugariz gain, udaleko, foru aldundiko eta jaurlaritzako ordezkariak eta komunikabide ugari bildu zen atzo.

**«oso sagardo ona»**
ohorezko lehenengo txotxa egin aurretik, prentsaurrekoa izan zen astigarragako sagardoetxean. bertan, joxe angel goñik, sagardoetxeko sagardotegietako bozeramaileak, azpimarratu zuen, besteak beste, aurtengo sagardoa oso ondo etorri dela, udazken freskoa egin duenez, ondo kontrolatu ahal izan dutelako, eta udara freskoak sagar ona ekarri duelako. «iruditzen zaigu sagardoa gorputzekoa izango dela, oso aromatikoa eta gardena».

**izaeradun produktua**
aduriz sukaldariak esan zuen, sagardoa edaten den aldiro ez dela ahora produktu natural bat bakarrik eramaten, «ingurune bat, paisaje bat, izakera bat, kultura bat...» ere eramaten dela. askotan, inguruan dugulako-edo, benetan duen garrantzia ez zaiola ematen ere adierazi zuen.

Zabaldu!

Atzera egin | Inprimatu | Norbaiti bidali

BILATZAILEA
Idatzi bilaketa hitza(k)

BILATU

ARGAZKIAK



IKUSI

Momentu honetan inkestarik ez dago

Eztabaida Lekua




Dobera bloga
Zure bloga gurekin




GAURKO KRONIKA

Get Adobe Reader



THEMOVIE S.L.-k garatua, 2005